



# HERRITARREK EGINIKOAK JENDAURRERA

Alegiako Artisauen lehendabiziko azoka antolatu dute igande honetarako; 20 postutik gora egongo dira 5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteazkena  
2008-05-28

VI. URTEA 1.445. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

KEPA FERNANDEZ LARRINOA GIZA ANTROPOLOGIAN DOKTOREA

## «Artikoaren kulturen aberastasuna eta ugaritasuna da erakargarriena»


**TOLOSA** Artikoari buruzko Amalur jardunaldien baitan, hitzaldia eskainiko du gaur, Kultur Etxean, 20:00etan

**ARTIKOAREN HISTORIA** «Bertako baten ikuspegitik bere lurraldearen historia baztertze historia latza da», dio 3



HITZA

## Jeremy Rifkinen bisitarekin bukatu da Naturaldia 4



Ibarran egin zuten atzo elkarretaratzea, besteak beste. A. IMAZ

## «Demokraziarik eza» salatu dute


**POLITIKA** Udal hauteskundeetatik urtebetera egoeraren balantzea egin du ezker abertzaleak 7

txokoa h

kontzerturako  
**sarrera pare bat** zozketan  
deitu eta eskuratu

OMAR FARUK  
TEKBILEK

Maiatzak 31  
Larunbata • 20:30ean  
Tolosako Leidorren



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez telefono zenbaki honetara: 943 65 56 95

## Laburrak

### Haur Eskolaren izena emateko epea irekita dago

**HEZKUNTZA** ● Haur Eskolaren izena eman nahi duenak aukera dauka dagoeneko. Ekainaren 10era bitartean egin daiteke matrikula. Horretarako Haur Eskolara bertara joan daiteke. Informazio gehiago nahi duenak berriz, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailera deituta eskura dezake, edo Haur Eskolara bertara, 943 67 36 96ra.

### Alain Resnaisen film bat ikusgai Zine Forumean

**ZINEMA** ● Bihar, Zine Forumean *Asuntos privados en lugares públicos* filma izango da ikusgai. Alain Resnaisen lanaren bi emanaldi eskainiko dituzte, lehendabizikoa 19:15ean eta 21:45ean. Filman ondorengo istorioa kontatzen da: Armadatik baztertu berri duten soldadua da Dan. Bere bizitzatik eta lagunengandik ihes egin nahian, alkohola hartuko du babesleku. Nicole bere neskalaguna ez da jabetzen harremana gainbehera doala, eta ez du aurkitzen Danengana hurbiltzeko modurik. Aldi berean, Gaele etsi-etsian eta batere arrakastarik gabe dabil maitasun bila.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Balarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Idoain.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen.** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRIAOK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzarar autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udalzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**lurrerandi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320



## E Elkarrizketa

**JOSE MANUEL LULUAGA** Tolosa CFren entrenatzailea

# «Mailari eusteko egituran aldaketak egin behar dira»

**Futbola** » Hiru denboraldiz Hirugarren Mailan egon ondoren, mailaz jaitsi dira Tolosa CFkoak; honen inguruan mintzatu da Jose Manuel Luluaga entrenatzailea.

#### ESTI EZEIZA

Hiru denboraldi egin ditu Tolosa CFko futbol taldeak Hirugarren Mailan. Azken denboraldi hau nahiko txarra izan da urdinetzat, ondorioz, mailaz jaitsi dira, eta preferentean ariko dira hurrengo denboraldian. Denboraldiko azken bederatzi partidetan Jose Manuel Luluaga izan dute gidari.

#### Denboraldiko azken zatia zeren zain balorazio egiten duzu?

Nirekin bederatzi partida jokatu dituzte, eta hauen oso balorazio ona egiten dugu. Hauetatik bost irabazi ditugu, eta azken momentura arte izan dugu maila mantentzeko aukera. Pena izan da mailaz jaista, baina hala ere, taldea hartu nuenean, banekien zaila izango zela hirugarrenean mantentzea. Dena den, 39 puntu lortu ditugu eta hori oso emaitza ona izan da.

#### Azken momentura arte ez zen jakin, jaitsiko zineten edo ez.

Azken aurreko partida galdu genuen, etxean jokatuakoa, eta izugarrizko pena izan zen hau. Baina ez genuen uste besteek irabaziko zutenik. Horregatik, nahiz eta azken irabazi, ez zegoen gure esku mailari eustea.

#### Zein izan da arazoa, zergatik jaitsi zaretela uste duzue?

Denboraldi guztiari begiratu be-



L.M.

harrara dago, taldea, urte osoko emaitzengatik jaisten baita. Baina ni ez naiz aproposena esateko zerk huts egin duen, denbora gutxi egon bainaz.

#### Zer moduz aurkitzen da taldea bera?

Esan beharra daukat, taldeak daukan guztia eman duela mailari eusteko. Azken partidetan lan handia egin dute eta hustu egin dira. Garrantzitsua izan da asko saiatu direla, eta ni ere horrekin geratzen naiz. Partida guztietan irabaztera joan dira, eta tentsioa handia izan da. Azkenean, jaitsi egin gara, baina jokalariek gustura egin behar dute, azken zatian egindako lanarekin.

#### Justua izan al da Tolosakoak jaitsia?

Azkenean jaisten da puntu gutxi dituena. Hala ere, maila ikusita, Tolosa baino talde txarragoak bazeuden denboraldi honetan. Baina, puntu gutxi ditudenak jaitsi behar du, eta gauzak horrela dira.

#### Gustura aritu al zara entrenatzaile lanetan?

Bai, sartu nintzenezan banekien oso lan zaila neukala, baina jokalariek ahal duten guztia eman dute, eta ni horrekin geratzen naiz. Horregatik, ni oso gustura aritu naiz.

#### Lehen ere izan zinen Tolosako entrenatzaile, ordutik hona gauzak asko aldatu al dira?

Oraingoan, taldea hartu nuenean burumakur zegoen eta lana korrika eta presaka egin behar izan dugu. Ez da berdina, taldea hasieratik hartzea, eta lan luze bat egitea, edo azken bederatzi partidak falta direnean hartzea.

#### Kanpotik nahiz barutik ezagutzen duzu taldea, asko aldatzen al da ikuspuntu batetik bestera?

Askok uste dute Hirugarren Maila ez dela indartsua, baina ez da horrela. Maila handia dago. Gure kasuan, desabantaila handienetako bat diruarena da. Ezin ditugu nahi ditugun jokalariek fitxatu, ez baitaie ordaintzen. Esaterako, Bizkaiko jokalariei ordaindu egiten

## Ondoko mendiak ezagutzuz

**AISA** ● Urkizuko Auzo Elkarteak antolatuta 30 lagun inguru joan ziren igandean Mendikute mendixka eta inguruak ezagutzera. Gainera, han inguruan dagoen kobazuloa barrutik ikusteko aukera ere izan zuten. Antolatzaileak «gustura» agertu ziren jendearen parte-hartzearekin, eta oro har goiz pasarekin. Hau, *Urkizu Berpiztuz* izeneko planaren baitan auzo elkarteak antolatzen zuen lehendabiziko ekintza izan zen. Baina aurrera begira beste batzuk ere agitea pentsatzen dute. HITZA

dieta, eta maila ona erakusten duten jokalariek hartzen dituzte. Guk berriz, etxekoekin jokatzeko bakarrak, eta hauek lan egiten dute. Horregatik, desberdintasun handiena hor dago, guk ezin baitiegu dirurik eskaini. Jende gehiagok ez badu parte hartzen ekonomikoki, oso zaila daukagu. Honenbestez, Tolosako taldea Hirugarren Mailan mantendu nahi bada, egituran aldaketak eman behar dira.

#### Mailaz jaitsita, egoera ekonomikoak ere okerrera egingo du?

Beno, preferentean jokatzeko duzunean, gainontzeko taldeak ere egoera berean egoten dira. Orain gainontzeko taldeen parean gaude eta lana egin beharra daukagu emaitza onak lortzeko eta mailaz igotzeko. Hala ere, hau ez da batera erraza. Errazagoa da Hirugarren Mailari eustea, preferentetik hirugarrenera igotzea baino. Denboraldi guztian ezin baitugu hutsgeterik izan. Baina, hala ere, taldea berriro igoko balitz, taldearen egitura erabat aldatu beharko litzateke, bestela, berriz, jaitsi egin gogaitzateke.

#### Beraz, aldaketak egin beharra daude?

Bai, handiak. Jende gehiagok hartu beharra dauka parte, bestela ezinezkoa da.

#### Hurrengo denboraldiari begira, taldea bera izango al da?

Bai, jokalariek gehienek jarraituko dute. Hala, hauek mantenduz, eta beste berri batzuk fitxatuz, talde oso lehiakorra izatea lortu dezakegu. Garrantzitsua da oinarria mantentzea.

#### Zu ere hor izango zara datorren denboraldian.

Bai, nik eta Luis Mendigainek jarraitu egingo dugu. Azken bederatzi partidetan taldeak izan duen jarri zitzaidan, eta hor izango naiz. Ahal den ongien egiten saiatuko gara, berriro taldea igotzea lortzeko asmoz.

**E Elkarrizketa**

**KEPA FERNANDEZ LARRINOA** › Giza antropologian doktorea

# «Kulturen aberastasuna eta ugaritasuna da erakargarriena»



LOTEGI / ARGAZKI PRESS

**Gizartea** › Amalur jardunaldietan Artikoa da hizpide; lehendabiziko hitzaldia Kepa Fernandez Larrinoak eskainiko du gaur, 20:00etan.

**ESTI EZEIZA**

Gaur, Kepa Fernandez Larrinoak (Bilbao, 1958) eskainiko du Amalur jardunaldien lehendabiziko hitzaldia, 20:00etan hasita, Kultur Etxean. *Artikoko gizarte eta kultura natioboi begirada sozioantropologikoa* izenburupean, bi norabidetako begirada erakutsiko du, historian, Mendebaldeko gizarteak eta Artikoko gizataldeek elkar nola ikusi duten arakatzeko helburuz.

**Zer da gaurko hitzaldian azalduko duzuna?**

Jatorrizko talde ezberdinak daude Artikoa. Hauek, zuriak eta mendebaldarrak joan baino lehenago ere hor bizi ziren. Hala, modu laburrean historia kontatzen dut.

**Zein izan da historian zehar eman den eboluzio hori?**

Historian zehar hango populazioa autonomoa izan da. Baina XVIII. mendetik aurrera bertakoak estuetan eta administraziopean sartzen dira. Honek arazoak ekarriko ditu, eta talka kultural bat sortuko da. Arazo soziokulturalak, gaitzak, alkoholismoa eta abar ekarriaz. Azken urteetan berriz, ikusten da bertako natioboi kulturek elkarrekin sortu dituzte eta hauek bitartez defendatzen ari dira, estatuaren aurkako proiektuak garatuz. Hemen, errekurtso naturalak nola kudeatu aztertzen ari dira, eta baita beraien kultura sendotzeko mugimendu handiak sortzen.

**Gero eta garrantzia politikoa handiago hartzen ari da egun, Artikoa.**

**diagoa hartzen ari da egun, Artikoa.**

Orain, izotzak urtzen ari direnez, teknologia berriak sartzeko aukera dago. Gainera, lurraren azpian, gasa, mineralak eta petrolio dago. Horregatik, hauek atera nahi dituzte eta berriro, garrantzia politikoa hartzen ari da. Errusiarrak eta AEBarrek beraien banderak jarri nahi dituzte toki bakoitzean. Bestalde, teknologia garatzen denean, eta izotzak desegiten direnean, ekonomikoki aberastasun handiak ekarriko baititu.

**Nolakoa izan da Mendebaldarren integrazio hori?**

Baztertze prozesu bat da. Ziurrenik, hango baten ikuspegitik ikusita, Artikoko historia, baztertze historia luze eta garrantz bat izango dela. Mendebaldarrok pobrezia eta indigenak batera doazela ikusten dugu gehienetan, horren adibide izaten dugu gehienetan Latinoamerika. Jende gutxi daki, Le-

hendabiziko Munduan ere indigenak badaudela, eta pobrezia handia dagoela, nahiz eta toki aberariz hangoak direnen artean, nahiz eta aberastasun handiak eduki.

**Mendebaldarrekiko zer jarrerak dute izatez, Artikokoak direnek?**

Artikoa zabala da eta talde asko daude, ikuspegi ezberdinarekin. Egun, jatorrizko biztanleen popu-

**Geroz eta garrantzia politikoa handiago du Artikoa lur azpiko aberastunengatik**

lazioa oso txikia da. Esaterako, 1950eko hamarkadan, Alaskan, jatorriz hangoak zirenak, populazioaren %65a ziren. 20 urte beranduago, %40 ziren. Beraz, kanpoko jende asko joan da, nahiz eta beste zenbait lurraldetara baino gutxiago izan, hango baldintzak ez baitira oso onak. Honenbestez, gehienetan, Artikoa, han jaio direnak gehiago izaten dira. Hala ere, politikoki garrantzia gehiago hartzen joaten bada, kanpotik jende gehiago joango da, eta hauteskunderetan, beraien ahotsa gutxiago entzungo da.

**Egun, zein da beraien iturri ekonomiko nagusia?**

Izatez hangoak direnentzat ehiza izan da historikoki eta tradiziozko ekonomia bidea. Haragia egiteko, nahiz larruzalaz trukatzeko. Hala ere, gero eta enpresa gehiago sortzen ari dira, eta petrolio, gasa nahiz mineralak diru-iturri handiak dira. Dena den, gertatzen dena da, horrelakoetan izugarrizko proiektuak izaten direla, eta hauek, ingurumenean kalde handiak eragiteaz gain, bertakoei etekin gutxi ematen dizkiete.

**Zein da Artikoa duen erakargarritasun handiena?**

Jende asko gabiltza inguru horretan, eta bakoitzarentzat ezaugarri erakargarri ezberdinak ditu. Esa-

terako, niretzat, antropologo gisa, kulturen aberastasuna eta ugaritasuna da ezaugarri deigarrienetako bat. Agian beste batentzat, abentura izango da. Egia esan, jende gutxi joaten da, nahiz eta gero eta iragarri gehiago egiten ari diren turismoa bultzatzeko.

**Bertako kulturen artean desberdintasun handiak al daude?**

Eskandinabian esaterako, orein zainak eta arrantzaleak daude. Baztuz itsaso aldean bizi dira, eta besteak barnean. Hauek denak Samiak dira, eta gehienetan, abeltzain nomadak izan dira, nahiz eta orain nomada gero eta gutxiago egon. Bestalde, eskimalak inuitak dira, eta sedentarioak dira. Ehizari lotuak daude, eta baleak, fokak eta

**Hango baten ikuspegitik, ziurrenik, Artikoa historia, baztertze historia latza izan da**

beste hainbat ugaztun harrapatzen dituzte. Hala ere, enpresen sorrera dela eta, gero eta ehiztari gutxiago daude han ere.

**Baldintza klimatologikoak berdinak al dira lurralde guztietan?**

Berdintsuak dira. Dagoen ezberdintasuna da, inguru batzuk lautadak direla eta besteak, basoak. Toki batzuetan, Eskandinabian esaterako, elur gehiago izaten da eta horregatik orein gehiago daude. Hauek belarra behar baitute jateko.

**Kulturalki, zein da beraien ezaugarri komuna, nabarmenena?**

Alderaketa bat egin beharra dago horretarako. Hemeretzigarren mendean antropologoek ikertu zuten inuitek zer egiten zuten han bizirauteko. Fisikoki aurrera jarraitzeko zein nolako estrategia kultural garatu zituzten atzeman nahi izan zituzten. XXI. mendean ikusi dugu antropologoen, beste gauza bat aztertzen dutela: kulturaldi ezberdinak diren bertako biztanleek aurrera jarraitzeko zer nolako estrategiak garatzen dituzten. Azken batean, hori da gako nagusia. Halaber, nabarmena da, kulturalki bizirik jarraitzea dela egungo helburua. Toki askotan autonomia lortu nahian dabilta baino zailtasunak dauzkate horretarako.

# hitza

elastiko berriak salgai  
hur, gazte eta helduentzat

Harpidedunentzat  
**%25**  
merkeago

Tolosako  
HITZAren  
bulegoan  
eskuragarri.

elastikoarekin  
**poltsa opari!**



## Emaitza «ezin hobeak» Samaniego eta Orixeko kirol taldeek

ERREDAKZIOA

Emaitza «ezin hobeak» lortu dituzte aurtengo denboraldian Samaniego eta Orixeko kirol taldeek. Neskak nabarmendu dira areto futbolan, bai alebinak, infantilak zein kadete mailakoak, Gipuzkoako txapelketako finalera iritsi baitira. «Urte osoko lan bikainari esker». «Zoritxarrez», ordea, hiru finalak aurkariak irabazi dituzte.

### Alebinak finalean urduri

Tolosaldeko lehiaketa «ezin hobeak» egin eta gero gure zonaldea ordezkatzeko txartela lortu zuten. Gipuzkoako txapelketan, finalera sailkatzea lortu zuten. Finala Azpeitian jokatu zen eta eskolatik autobus bat joan zen neskak animatzera. «Giroa ezin hobeak izan zen». Urko Alonsok entrenatzen duen taldea oso urduri hasi zen, baina pixkanaka lasaitzen eta hobeto jokatu hasi ziren. Aurkariak gol bat sartu zuten eta gero defentsa on batekin errenta hori mantentzen jakin zuten.

### Infantilek ere «maila altua»

Infantil neskek ere, «joko maila ezin hobeak» erakutsi dute. Gipuzkoako txapelketako finalerako txartela lortu zuten, ligako lehenengo biak sailkatzen baitziren. Aurkariak Laskorain B taldekoak izan ziren. Finala oso interesgarria eta berdindua izan zen, eta azkenean 4 eta 5eko emaitzarekin amaitu zen partida Laskoraingoen alde.

### Kadeteak parekatuta

Iragan asteburuan jokatu zuten Gipuzkoako finala. Loinazpe Idiazabalgo taldea izan zuten aurkari. Oso partida berdindua espero zen, eta halaxe izan zen. 0-2 aurreratu ziren Idiazabalgoak. 2-2 berdindu zuten Orixeko neskek, eta finala penaltietara erabaki zen. Hemen Idiazabalgoak hobeto aritu ziren eta txapelketa beraientzat izan zen.

Ikastetxeko arduradunek kirolariak zoriondu nahi izan dituzte «egin duten lan guztiarengatik».

## Jeremy Rifkinekin, agur aurtengo Naturaldiari

**Gizartea** » Txillida Lekun eskaini zuen herenegun hitzaldia energia berriztagarrietan aditua den Rifkinekin.

ERREDAKZIOA

Jeremy Rifkinen herenegun Txillida lekun eman zuen hitzaldiarekin amaitu dira aurtengo Naturaldia jardunaldiak. *Energia, eta ekin!* lelopean energia berriztagarriak izan dituzte aurten ardatz jardunaldi hauek, eta herenegun Foundation on Economic Trends erakundearen presidentek eta aldaketa zientifiko eta teknologikoek ekonomiaren, esku-lanaren, gizartearen eta ingurugiroaren duten eraginari buruz hamazazpi bestseller idatzi dituen Rifkinen *Hirugarren industria Iraultza: energia berdearen aurrerantz eta hidrogenoaren ekonomiarantz bidea irekitzen gaia* jorratu zuten.

### Petrolioaren gainbehera

Rifkinen energia mota baten, petrolioaren gainbeheran gaudela esan zuen, izan ere, «petrolio gehiegi erabili dugu». «Energia gehiegi erabiltzearen ondorioz klima aldaketa bezalako eraginak sortu ditu gizakiak, eta kontsumoa murriztea litzateke jarraitu beha-



Jeremy Rifkin, herenegun, Txillida Lekun hitzaldia ematen. J. SAIZAR

rreko bide bat; hori eta energia berriztagarrien bidetik joatea, eta hor dago, esaterako hidrogenoa», azaldu zuen. Hala, Hirugarren industria Iraultza etorriko dela adierazi zuen: «eguzkia, haizea, hondakinak, energia geotermikoa, ura... erabiltzea energia sortzeko da bidea, eta horrelakoetarako eraikinak sortu behar dira. Eraikin edo baliabide hauek egiteko laguntzak eman behar dira lituzkete erakundeek». Huescako adibide bat jarri zuen energia berriztagarriak azaltzeko.

Hirugarren industri Iraultzare-

kin batera komunikabideen iraultza ere etorriko dela azaldu zuen Rifkinen. «Teknologien iraultza ere iritsiko da, izan ere, guztia loturik dago». Halaber, Amerikan ez baina, Europan gertatuko dela iraultza adierazi zuen. «Egun, Europan dago espertazio gehien, eta baita kontsumo eta biztanle gehien». Euskadunen jatorriaz ere aritu zen, denak bikote beretik, Afrikatik, gatzela azalduz.

Tolosako Udaleko ordezkariak, nahiz Tolomendikoak izan ziren, besteak beste, hereneguneko hitzaldian, Txillida Lekun.

## Tolosako Artisten Pintura Lehiaketa antolatu du Txinpartak

ERREDAKZIOA

Txinparta elkarteak, aurreko urtetako ohiturari jarraituz, aurten ere, Tolosako Artisten Pintura Erakusketa antolatu nahi du. Aurtengoa 52. edizioa izango da.

Erakusketa elkartearen lokalean burutuko da San Joan jaien baitan, hau da, ekainaren 21, 22, 23 eta 24an. Erakusketa bisitatzeko orduak: 12:00etatik 14:00etara eta

19:00etatik 21:00etara izango da. Inaugurazio ekitaldia eta epaimahaiaren erabakia, berriz, ekainaren 21ean, izango da, 18:30ean Txinparta elkartearen lokalean.

Tolosaldean jai diren edo bertan bizi diren artista guztiak parte hartu ahal izango dute. Obrek (gehienez 2 obra lehiakide bakoitzeko) originalak izan behar dute, teknika librez eta gehienezko

73x60ko formatuan eginak. Lehiakideek formularioa entregatu behar dute, beranduenez maiatzaren 31an, izena eta bi abizen, helbidea, telefonoa, obren izenburua eta erabiltzeko teknika adieraziz, etalanan, 16, 17 eta 18abitartean entregatu behar dira 19:00etatik 21:00etara, elkartearen. Irabazleak 240 euro jasoko ditu, bigarrenak 180 eta hirugarrenak, 120.

## Emaitza onak lortu dituzte Tolosa eta Ibarako xake jokalariek

**Xakea** » Datorren larunbatean Tolosako xake azkarreko txapelketa izango da, Berdura Plazan, 16:00etan.

ERREDAKZIOA

Ekintzez betetako asteburua izan dute Tolosa-Ibarako xakelariak. Larunbatean, talde nagusia Elgoibarren izan zen, bertako xake azkarreko txapelketa jokatu zuten. Hasi «bikaina» eman zioten txapelketari eta lehen postuan jarri ziren segituan. Eta finalean Sociedad Ajedrecística Logroñesari irabazita txapela buruan zutela itzuli ziren etxera.

Igandean, berriz, gaztetxoentzanda izan zen. Kutxa Topaketen azken saioa jokatu zuten, kadeteak batetik eta alebinak bestetik. Kadeteek lan txukuna egin zuten eta multzoko bosgarren postuan amaitu zuten. Lehen laurek bakarrik lortzen zuten finalerako txartela eta, beraz, finaletik kanpo geratu dira. Emaitza hobeak lortu zituzten alebinek eta Tolosa-Ibarako bitaldeek, bakoitzak bere multzoko lehen postua lortuta, ekainaren 8an Donostian jokatuko den finalean izango dira.

Bestalde, datorren larunbatean, hilaren 31ean, Tolosako xake azkarreko txapelketa jokatuko da Berdura Plazan. Banaka izango da, bost minutuko partidetak. Txapelketa arratsaldeko laurretan hasiko da eta eskualdeko edonork parte har dezake. Jokatu nahi duenak nahikoa du bertara hurbiltzea hasiera ordua baino minutu batzuk lehenago.



Eskualdeko xake jokalariek. HITZA

malen   
Hernani kalea 8, Donostia

elena miro 



Alegiako Artisauen lehenengo azoka antolatu dute igande goizean eta 20 postutik gora elkartuko dira. Berezitasuna, herritarrek osatutakoa dela, eta gauzarik bitxiak ere aurki daitezkeela.

# Herritarren artisautzak, plazan

NEREA URBIZU

**H**erritarrek osatuko duten artisau azoka antolatu dute Alegian datorren iganderako. Goizean zehar 20 postutik gora izango dira plazan, bakoitzak hobekien menperatzen duen lehengai horrekin artea zuzenean egiten batzuz, eta beste batzuz, egindako horiek erakusten, hau da; artisautza hauekiko batzuz ikusteko izango dira, eta beste batzuz, berri, erosteko moduan izango dira.

Artisau guztiak alegiarrak dira, bat izan ezik, Maider Jauregi zinegotziak argitu bezala: «Artisau bat amezketarra da, baina pixukoa arrazoi bat badugu: txintxarrigilea da eta gu txintxarriak garenez, egokia iruditu zitzaigun. Ez dakit plazan zuzenean egingo dituen, baina txintxarrigilea da behintzat». 20 postuen artean, hauek daude: fimoa lantzen duena, margolaria, saskigilea, itsasontzien maketa egilea, bordatua, puntua, etxeko tresnak margotuta eta apainduta, birziklatutako materialarekin egindako diru-zorroak, egurra lantzen duena, kosmetika naturala egiten duena, larrugin-tza... Bada, beraz, artisautzaz gozatzeko aukera.



Saskigilea ez da faltako herriko plazan igandean. N. URBIZU

## Postu bitxiak ere bai

Beste bitxikerien artean, badira beste hiru aipatzekoak: pilota eskolako kideek eskuetakoko takoak jartzen eta egiten arko dira. Ederki ikasi zuten aurreko ikastaroan eta hori ikusgai jarriko dute. Kultur Etxeko ikastaroetan ikasitakoak ere plazan jarriko dituzte bertako ikasleek, landu duten hori erakusteko.

Haur txoko bat ere izango da bertaraten diren txikientzat: papiroflexia egingo dute eta hainbat materialekin eskulanak egin ahal izango dituzte. Bukatzeko, Aralar

institutuko DBHko ikasleek ha-maiketako egin ahal izateko postu bat jarriko dute, jatekoak eta edatekoak izanik. Lortutako diruak egingo dute bidaiari ordaintzen laguntzeko balioko du.

## Lehenengo artisau azoka

Alegian azokak egin izan dituzte, baina Jauregiaren esanetan, «berreziki artisauena lehendabizikoa da». Ideia «kultur batzordearena izan da: aurreko udazkenean barazki azoka egin genuen, eta ondo atera zen. Kultur batzordekoek sentsazio ona zuten eta beste azo-

ka bat egitearen ideia izan zuten. Zerena egingo, eta artisauen ideia atera zen. Egia esan, jendea gogoz dago».

Ideia sortu zenetik jendearrekin hasi ziren harremanetan jartzen eta ezagutzen zituzten artisauen zerrenda bat osatzen. «Deiak ere jaso genituen beste herritarrik azokan parte hartu nahi zutelana, baina hasieratik esan genuen herritarrekin osatu nahi genuela, aurten behintzat».

Datorren urtean antolatuko duten ez dakite oraindik, erantzuna ikusi beharko delako, «baina segurua da barazki azoka berri egingo dugula: aurten goizago, urria alderara».

## Artisautzako oharra

Igande goizean, 09:30etik aurrera artisauak beraien postuak prestatzen hasi daitezke. Azoka ikusi nahi dutenentzat, aldiz, 11:00etatik aurrera izango dute aukera, 14:00ak arte.

Ekaineko hilabetea desberdin hasi da, hasieratik aurrera musikaz eta faltako. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian egingo lukete azoka. «Plazako arkupeetan ere pentsatu genuen baina egokiago ikusten genuen frontoian egitea».

## Laburrak

### Tuduriren hitzaldia gaur Donostian

**KULTURA** ● Migel Zeberio tolosarra zuzendari den Donosti Ereski abesbatzak antolatutako bigarren kultur jardunaldien baitan *Eskiaren hasierak: eskiaren lehen 100 urteak Gipuzkoan* hitzaldia emango du gaur Frantzisko Tudurik Donostia-ko Kutxaren Arrasate aretoan, 20:00etan. Antxon Bandresek aurkeztuko du hitzaldia.

### Astarloza eta Zubeldia txirindularien hitzaldia

**ALEGIA** ● Alegiako IV Kirol Astearen baitan gaur Euskaltel txirindulari taldeko Haimar Zubeldia eta Mikel Astarloza izango dira Kultur Etxean. 15:30ean izango da haien hitzaldia eta irekia da.

### Ohiko bilkuran bihar, EAE-ANVren mozioa

**AMEZKETA** ● Bihar 20:30ean udal-txean ohiko bilkura izango da. Besteak beste, ondorengo gaiak aztertuko dituzte: Larraritz-bidearen ondoko eremuko Hirigintza Egitasmo Proiektuaren onarpena; herriko edateko ura banatzeko sarearen kudeaketa planak eta ur sarearen hobetzeko ekintzak burutzeko dirulaguntza eskaera-egitea; Ergoneko frontoiko birmoldaketa obraren esleipena; ANVren mozioa: *Euskal Herrian demokrazia zero*.

# Mirandaola parkera ibilaldia

**Altzo** ● Udal Gizarte Zerbitzuak antolatu du eta jubilatuentzako izango da ekainaren 8an; izena aurretik eman daiteke.

ERREDAKZIOA

Datorren ekainaren 8rako Altzoko Udal Gizarte Zerbitzuak jubilatuentzako ibilaldia antolatu du. Mirandaola parkera joango dira besteak beste osorik burdinaz egindako Euskal Pilotako frontoi bakarra, iturriak eta ibilbide atsegi-

nak ere ikusi ahal izango dituzte. Interesa dutenek izena Altzoko Udal-txean eman beharko dute ekainaren 3a baino lehenago (aste-artera).

## Bazkaltzeko menua

Parketik atera gabe Euskal Burdinaren Museoa, Mirandaola Burdinola eta Mirandaolako Baseliza ikus ditzakete eta Mirandaola jate-txean bazkalduko dute. Aukeratu duten menua bikaina da: urdaiaz-pikoa, legatz pudina, frijituak, ondo nahaskia, arkume iztar erre, pastela eta izozkia eta kafea.

## Artzantzaz eta ogiaz ikasteko

16:00etan Artzantzaren Ekumuseoa eta Ogiaren Txokoa bisitatuko dituzte han bertan. Errotariaren eta ogiaren kontsumoa omen-du nahi ditu Ogiaren Txokoak, etengabeko elementuak izan baitira historian. Horrela, ogia labetik atera arteko prozesua erakusten ditu.

Guztira 25 euro ordaindu beharko da: autobusa 10:45ean abiatuko da Altzoko plazatik, esan bezala, ekainaren 8an. 12:30ean Mirandaola burdinolan gotea espero dute.

## Zurea da hitza info

# Bedaion seinalizazio gehiago jarri dituzte

BEDAIOTIK

Tolosako Udala eta Erein programaren diru laguntzen bitartez baserrien izenak bideratzen dituzten seinale eta postontziez gain zenbait panel informatibo berri jarri dituzte Bedaion.

Jendeak uste duena baino garrantzitsuagoa da baserriak marrazten dituzten seinaleak jartzea.

Adibide bat, anbulantziak edo suhiltzaileek baserri batera joan behar dutenean, argi adierazita dutela orain norabidea. Eskertuko dute ere txirindulariek edo mendizaleek, iturriko bidea markatuta egotea, eta nolaez, orokorrean bedaiotarrok. Laister telebista eta internetera konektatzeko antena ere izango du dugu...



## Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Bidasoa-Txingudi

Ekaina, Asteartea 3, asteazkena 4 eta osteguna 5. 19.00etatik 21.00etara, Inungo Amaia Kultur Zentroan.

Debabarrena

Ekaina, Asteartea 3, asteazkena 4 eta osteguna 5. 19.00etatik 21.00etara, Eibarko Portales Kultur Etxean.

Izen emateko:

Ordu

Helbide

Setsa

943 25 10 05

partehartu@baketik.org

www.baketik.org

Laguntza:

Aholketa:

Sufizitza:





Zutik, Unai Usandizaga eta Jon Zubeldia, eta makurtuta, Unai Kortajarena eta Julen Jauregi. Argazkian Enaitz Roteta falta da. HITZA

## Pilota eskolakoek oso emaitza onak lortu dituzte Gipuzkoakoan

**Asteasu** » Infantil mailako mutilen taldeak eskuzkoan eta alebin mailako nesken taldeak paletan txapela eskuratu dute.

### ERREDAKZIOA

Asteasuko Pilota Eskolako neska-mutilek aurtengo Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketaren oso emaitza onak lortu dituzte. Infantiletako mutilen taldea txapel-dun berria da eskuzko txapelketan eta alebin mailako neskek paletan ere txapelketa eskuratu dute.

Asteasutik talde ugari parte hartu dute. Eskuzko txapelketan

benjaminetan bi talde, alebinetan beste bi eta infantiletan bat. Txapel-dun izatea lortu zuen infantil taldea ondorengoek osatzen dute: Unai Usandizaga, Jon Zubeldia, Unai Kortajarena, Julen Jauregi eta Enaitz Roteta.

Paleta txapelketan Asteasuko pilota eskolako pilotariak ere nahiko fin aritu dira. Alebin mutilen taldeak parte hartu dute. Hauetako batek azken fasera sailkatzea eta finalerdietara iristera lortu zuen. Txapela jantzi zutenak Izaro Garmendia eta Irati Otaegi neska alebinak izan ziren. Infantil mutilek, ondo hasi ziren arren, ez zuten lortu finalera iristerik, baina hirugarren postuan sailkatu dira.



Izaro Garmendia eta Irati Otaegi, sariak jaso ondoren. HITZA

## Laburrak

### Jubenilen partida bat bihar jokatu da

**PILOTA** » Hitza Pilota Txapelketaren baitan, gaur jubenilen mailako hiru partida jokatu dira Alegian, 19:00etan hasita. Laugarren partida, Jauregi-Agiriako eta Barbarena-Pazos bikoteen artekoa bihar jokatu da, Alegian ere, 21:00etan.

### Osoko bilkura egingo dute gaur, 20:00etan

**VILLABONA** » Udaltzatza gaur, 20:00etan ezohiko osoko bilkura egingo du eta bertan ondorengo gaia jorratuko dituzte: Remigio Aiestaran zingotziak aurkeztutako *Euskal Herrian demokrazia zero!* mozioa; Villabonako Amnistiaren aldeko Mugimendua aurkeztutako mozioa; udal etxebizitza tasatua arautzeko udal ordenantza behin betiko onartzea; eta eguzki panel fotovoltaikoak ipintzeko udal instalazioak erabiltzeko lagatze hitzarmena onartzeko proposamena.

### Arpa kontzertua, gaur, Pedro Mari Otaño eskolan

**ZIZURKIL** » Maiatza Saltsan egitarauaren baitan eta Pedro Mari Otaño ikastetxearen 25. urterrenaren ekitaldien baitan, gaur Oihane Igerabidek eta Juan Kruz Igerabidek arpa kontzertua emango dute. Emanaldia 15:15ean hasiko da Otaño ikastetxean.

### ONA txartela tramitatzeko aukera KZgunean

**ADUNA** » ONA txartela, Osakidetza txartela eta herritar txartela elkartzan dituen, doan tramitatzeko aukera dago Adunako KZgunean. Hilaren 30era arte egin daiteke, 09:00etatik 13:00etara. Txartel horren bidez, hainbat gauza egin daitezke ordenagailutik bertatik, inora joan gabe: medikua-rengana joateko txanda hartu, medikua aldatzeko eskatu, beste mediku baten iritzia eskatu, asistentzia-espedienteak eskatu, bajen datuak eskatu... 16 urtetik gora izatea, nortasun-agiria kadukatu gabe izatea eta Osakidetza txartela kadukatu gabe izatea dira bete beharreko baldintzak.

## Ernioaldea Udaltalde 21ek EkoCenterrera bisita antolatu du

**Agenda 21** » Erabilitako gauzak nola jaso, konpondu eta salgai jartzen dituen Emaus Fundazioa ikusi ahalko da.

### ERREDAKZIOA

Ernioaldea Udaltalde 21 osatzen duten udalerriek (Aduna, Anoeta, Asteasu, Irura, Villabona eta Zizurkil) Aste Berdea ospatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte elkarlanean. Horietako bat EkoCenterra bisita gidatua izango da, ekainaren 5ean.

EkoCenterra Belartzan kokatzen da, Urbil merkataldearen ondoan. Bertan, Emaus Fundazioaren bitartez, erabilitako hainbat gauza jasotzen dira eta sailkatu eta konpondu ondoren, salgai jartzen dira. Doan izango den bisita honetan prozesu guztia ezagutzeko aukera izango da eta birziklapen tailer bat ere egingo da: kartoia erabiliz, aulki bat egingo dute bisitariek, gainean esertzeko modukoa, eta aulkia norberak bere etxera eramateko aukera izango du. Bi orduko iraupena izango du bisitak, 10:00etatik 12:00etara.

Belartzara autobusean joango dira eta ondorengo orduetgia izango du: Anoetan, farmazia aurreko autobus geltokian, 09:05ean; Irura, Trinketean, 09:10; Villabonan, Elizaren aurreko autobus geltokian, 09:20ean; Zizurkil Behean, Pásus plazan, 09:25ean; Asteasun, herriko plazan, 09:30ean; Zizurkil Goian, Pedro Mari Otaño plazan, 09:40ean; eta Adunan, autobus geltokian, 09:50ean.

Bisitan Ernioaldea osatzen duten herriko biztanleek parte hartu dezakete eta aurretik izena eman behar da 619 77 04 08 telefonoan. Horretarako azken eguna gaur da.

### Bigarren eskuko azoka

Beste ekitaldietako bat bigarren eskuko gauzen azoka izango da, ekainaren 7an. Villabonako Berdura plazan egingo dute, 10:30etik 14:00ak arte. Edonork bigarren eskuko edo zer saltzeko aukera izan-

go du, baina hori bai, zerbait saldu nahi duenak, egun horretan bertan egon beharko du. Antolatzaileek jarriko dituzte postuak eta norbera arduratuko da bere salmentaz. Azoka irekitzearekin batera, Ten Con Ten kultur taldearen *Ingu-rú/Menua* ikusteko aukera egingo da eta birziklapen tailer bat ere egingo dute. Zerbait saldu nahi duenak edo informazio gehiago nahi duenak 943 36 75 34 telefonora deitu dezake edo [ekocenter@emaus.com](mailto:ekocenter@emaus.com) helbidera idatzi.

### Plastikozko poltsa gutxiago

Beste egitasmo bat *Erostera nirekin!* erositaketa poltsa berrera-bilgarriak banatzea da. Ekainaren 11tik 13ra egingo dute Ernioaldea osatzen duten herrien etxe-guztietan. Plastikozko poltsa gutxiago

### Telazko poltsa banatuko diete Udalek herritarrei, plastikozko poltsaren erabilera murrizteko

erabiltzea da helburua eta horregatik banatuko dute telazko poltsa. «Behin eta berriz erabiltzeko balio du eta tolestuta txiki-txikia geldituzten denez, ez du inbarazurik egiten», azaldu dute Ernioaldeatik. Udalek herritar guztiak animatu nahi dituzte poltsa hauek erabiltzera erositak egiteko, plastikozko poltsen erabilera murrizteko.

Ekintza hauen guztien berri eta Tolosan antolatu direnen berri ere ematen duen egitaraua banatuko zaie herritarrei. Horrekin batera, traste zahar eta altzarien bilketaren eta etxeko olio eta hondakin arriskutsuen bilketa zerbitzuen data eta ordutegi buruzko informazioa jasotzen duen iman bat ere banatuko da. Iman honekin, herritarrek hondakin bilketa zerbitzuen hauen inguruko informazioa etxean edukitzea lortu nahi da, behar denean kontsultatu ahal izateko. Horretaz gain, egun horietan, *Tierra* filma ikusteko aukera izango dute Aduna, Anoeta, Asteasu, Irura, Villabona eta Zizurkilgo ikastetxeetan.

## Hilberria

### FELIX ILLARRAMENDI AREIZAGA



(Thelia lankidearen aita)

Jaso ezazue  
une latz hauetan  
gure besarkadarik beroena

Zarauzko euskaltegia

ZARAUZKEN  
2008ko maiatzaren  
28an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



Ibarrako ezker abertzaleak prentsurrekoak eskaini zuen atzo «urtebetez... demokrazia zero!» salatzeo. ASIER IMAZ

## Ezker abertzalearen azken urte honetako balorazioa

**Politika** » Hauteskundeak egin zituela urtebete bete zen atzo eta Lizartza, Tolosa eta Ibarren protesta ekitaldiak egin zituzten.

ASIER IMAZ

2007ko maiatzaren 27an udal hauteskundeak egin ziren. Ezker abertzaleak urtebete honen inguruko balorazioa egin zuen Tolosa, Lizartza eta Ibarren, besteak beste «urtebetez... demokrazia zero!» salatzeo.

Tolosa eta Lizartzan elkarretaratzeak egin zituzten atzo udal txekuraren eta Ibarren ohiko bilkuraren ostean, prentsurrekoak eskaini zuten Alderdien Legearen

ondorioz udalaren ordezkaritza ez du duten hautetsi independentistek.

### Ibarrako prentsurrekoak

Ibarrako hautetsi independentistek hauteskundeetan 710 herritarren babes jaso zutela aipatu zuten lehenik, «beste alderdiekiko diferentzia handiarekin, ibarrak ezker abertzalearen lantaldea hautatu zuten udalaren kudeaketarako. Herritarren kalterako eta interes askoren onurarako orde, bestelakoa da egoera».

Ezker abertzalearen esanetan, «egoera antidemokratiko honen arduradun nagusia PSOEren gobernuaren izanik ere, udaletan orohar eta Ibarren ere, eguneroko jardunean, EAJ-PNV, EA eta EBk legea

aplikatzen dute, nahiz eta hitzez legearen aurka agertu». EA eta EAJrekin egoera bideratzeko ahalginak egin dituztela aipatu zuten: «EAtik arazo gurea zela eta ez zeudela esperimintuetarako esan ziguten. EAJrekin berriz, formula zehatz bat adostera iritsi ginen bainan ondoren, ez zuten pausurik eman».

«Demokrazia zero egunero eta gai txikienean» ere nabaritzen dela argitu nahi izan zuten prentsurrean; «Udal langileekin izandako gatazka, Txontxo eta ondoko etxe babestuak botatzeko erabakia eta modua, haur eskolaz hartutako erabakia, ...». Ezker abertzaleak bere aldetik «Ibarra egunegun ezkerretik egiteko ahalginearainaraituko» duela esan zuen.



Lizartza eta Tolosan ere elkarretaratzeak egin ziren «Demokrazia zero!» salatzeo. Irudian Tolosakoa. A. IMAZ

**@ Inkestak.** Sartu gure web orrian dagoen atal honetan eta eman zure iritzia bertan agertzen diren galderari. Mezuak idazteaz gain, inkestaren emaitzak ikusi ahal izango dituzu. Inkestak atalean besteak beste honelako galderak aurkituko dituzu: TAO aparkatzeko sistemak Tolosan urte batzuk badaramatza. Sistema honen helburua kontuan izanik (jendek kotxea gutxiago hartzea, besteak beste) somatu al duzu eragina? artean web orrian eta erantzun: [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.

### GALDUTAKOAK

■ **Katua.** Katu pertsa ilegorria (emea/ 10 hilabete) galdu zen larunbatean Leitzan. Aurkituz gero deitu telefonoz: 656 71 94 23 (Ifñaki).

■ **Txakurra.** Txakur bat agertu da Orexan. Tamainu ertaina, marroi kolorea eta hanketan ile zuririk ditu. 943 68 20 35.

### SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai Tolosako alde zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu: 657 23 0011/634 9194 82.



Aurten ere Toka Txapelketa egongo da Txaramako jaietan. JAIONE ASTIBIA

## Txaramako jaiak etzi hasiko dira Festa Batzordearen eskutik

A. IMAZ

Festa Batzordeak antolatutako jaiak etzi hasiko dira Txaraman. Bi egunetan zehar ekitaldi ugari parte hartzeko aukera izango dute herritarrek eta gerturatzen direnek; Toka Txapelketa, Pintxo

Lehiaketa eta Mus Txapelketa Azkarra egongo dira, besteak beste. Haur Jolasak eta Txokolatada ere ez dira faltako txikienezat.

Jaietako amaiera emanez berriz, larunbatean, Herri Afaria egongo dute trikitilari eta bertsoariariek.

### » EGITARAUA

#### Maiatzak 30, etzi

■ **20:30ean.** Jaietako hasiera emanez Suziria.  
■ **Ondoren.** Barrikotea plazan, baita baita afaltzeko gustoko duena etxetik emanda.

#### Maiatzak 31, larunbata

■ **11:00etan.** Suziria.  
■ **11:30ean.** Leaburu-Txaramako dantzari gazteen dantza emanaldia.

■ **Ondoren.** Toka Txapelketa.  
■ **Jarraian.** Pintxo Lehiaketa. Gurtxienez 6 pintxo berdinen eraman beharko dira.  
■ **16:00etan.** Haur Jolasak eta ondoren Txokolatada.  
■ **17:30ean.** Mus Txapelketa Azkarra karpan.  
■ **21:00etan.** Herri Afaria. Astiazaran trikitilariariek eta Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsoariariek.

## Laburrak

### Koadrilen Eguneko bilera garrantzitsua bihar

**IBARRA** » Bihar Koadrilen Eguneko bilera egongo dute 20:00etan Sen-di Ekintzan. Bertan hurrengo 10 urteetan bazkariak eta pipar errektak nork egingo dituen zehaztuko da. Hau dela eta, ezinbestekoa del koadrila guztien ordezkariren bat agertzea adierazi dute.

### Ongi erostearen inguruan bihar 18:00etan hitzaldia

**OREXA** » Uli Mankomunitateak eta Kutxa Ixasgelak osasunari buruzko hitzaldia antolatu dute bihar Orexan. 18:00etan hasiko da hitzaldia eta bertan ongi erosten jakitearen inguruan hitzegingo dute. Herritar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldi honetara.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Kepa Fernandez de Larrinoa antropologoak *Artikoko gizarte eta kultura natiboei begira soziokulturala* hitzaldia emango du Kultur Etxean 20:00etan, Amalur jardunaldien barruan.

### Musika

■ **Tolosa.** Mitoen sinfonia Leidor aretoan 19:30ean, XIV. Musikaria astearren barruan.  
■ **Zizurkil.** Oihane eta Juan Kruz Igerabideren arpa-poesia kontzertua Otaño ikastetxean 15:15ean, 25. urteurreneko ekitaldien barruan.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Afari turkiarra Fronton jatetxean 21:00etan. Gonbidatua: Omar Faruk Tekbilek. Suku Karakusen margoak zozketatu dituzte. Sabel dantza.  
■ **Tolosa.** Txinparta elkarteak antolatzen duen pintura erakusketarako izen-ematea egin daiteke elkartearen bertan.

### Irteerak

■ **Tolosa.** Vignemale mendira irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak ekainaren 6tik 8ra. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian. Maiatzaren 31tik ekainaren 1era, berriz, San Donatora irteera antolatu du gazteentzat.  
■ **Tolosa.** Harizpek Urkiolara irteera antolatu du ekainaren 13rako. Izen-ematea, elkartearen 27 euro (ez bazkideek, 30 euro).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Futbolari txikiak futbolari ezagunarekin

**ALTZO** ■ Herenegun Gari Uranga Realeko jokalaria Altzoz izan zen bertako umeekin. Eskolako kirol ekintzak bukatu direla eta, amaiera emateko, jai giroan elkartzu ziren Altzoko Elkartean Uranga eta Altzoko kirolari txikiak. Mokadutxo ere izan zuten elkartearen. Umeei Realeko jokalariai

hainbat galdera egiteko aprobetxatu zuten bisita, ilusioz bete-beteta. «Batek daki, agian hemendik urte batzuetara Altzoz Gari bezain ona izango den jokalaria daukagu gure umetxoaren artean», zioen broma artean Altzoko guraso batek. HITZA



3 karpa  
Jaki tipikoak  
24 garagardo mota  
5 KALIMOTXO ezberdin

Zinema euskaraz **berria**ekin

**Maiatzaren 31n, larunbata**

filma DVD formatuan

nòmadak tx

Txalageta bakarra da musika tresna

izandako desio batek abiatzen du. Txalageta, euskal kulturaren sinbolo eta hotsa den hori, pertsonen topaleku ez ezik, kulturen arteko ere irratia mahi dute. Desira horrek hultzatuta, bi protagonistek planetako lekuri ezagunetara bidaiatzeko dute abots eta soinu ezberdinen bila. Indiako adivasiak, Laponiako samiekin, Mongoliako estepako biztanleekin, eta herri saharararekin batera biziko dira. Topaldi bakoitza paregabea izango da. Ezusteko eta esperientzia bakarrez josia.



+ 6,95€



informazioa **h**  
**i**



**gida** laster zure buzoian

'Bizipenak eraikitzen du geografia, ez paisaiak, ez argiak, ez koloreak.'

Laura Mintegi

Harpidedunentzat informazioa

oharra: egunkaria okinen bidez jasotzen duten harpidedunek HITZAren egoitzan eskuratu ahal izango dute gida

OHARRA: Irizkiak bukatu artikolo eskirritza